

## TOKIKO ENPRESEK KONTRATATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA, DONOSTIAN ENPLEGUAREN SORRERA BULTZATZEKOAK, ENPLEGUA SUSTATZEKO 2024. URTEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN BARRUAN (E.H.A.A., 2024 KO APIRILAK 2).

### ATARIKOA

Donostia Sustapena Sozietateak 2023an hirian berrikuntza arloko erreferente bilakatzera eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren eginkizuna betetzera bideratutako estrategia eta kudeaketa-eredu berriranzko trantsizio baten aldeko apustua sendotu du.

Horrek berekin dakar pertsonen, enpresen eta proiektuen bidelagun izatea, pertsonalizazioa, kalitatea eta begirada estrategikoa ardatz hartuta, eta hiriko berrikuntza arloko ekosistema osatzen duten eragile publiko zein pribatu ezberdinekin lankidetzara aritzearen aldeko apustu argi batekin.

Donostia Sustapenaren helburua prestakuntza- eta enplegu-ibilbideak sortzea xede duen eredu bat bultzatzea da, non funtsezkoa den itunak egin eta enpresa arloarekin eta prestakuntza-erakundeekin nahiz hirugarren sektorearekin sare-lanean aritzea.

Tokiko langabeziak zaurgarritasun handieneko zenbait kolektibotan metatzen jarraitzen du: 2024ko apirileko datuak aintzat hartuz, Donostian 6.849 pertsona langabetu daude erregistratuta, emakume (% 55,3) eta gizonen (% 44,7) artean desoreka ageri delarik. Horrek % 1,03ko genero-arrakala dakar hiriko langabezia femeninoaren eta maskulinoaren indizean.

Bestalde, datuen azterketak adierazten duenez, iraupen luzeko pertsona langabetuak asko dira (% 44,6), eta hori bereziki areagotzen da adinak aurrera egin ahala eta emakumeen artean.

Modu berean, Donostian, langabezian dauden pertsonen % 59,1a 45 urte edo gehiagokoa da. Horien artean % 56,1 dira emakumeak; aldi berean, emakumeak dira gehiengoa langabezian dauden pertsonen kolektibo guztietan, 25 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Azkenik, datuek erakusten dutenez, langabeziak, era berean, tokiko gazteen artean adierazgarritasun berezia du, bereziki 25-34 urte bitarteko adinean.

Horrela, horiek guztiak xede kolektiboak dira, hiriko enpleguaren bilakaera eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeari begira.

Horretarako, 2023an, 2 milioi euro inguruko inbertsioa egin zen esparru horretan, sektorean gakoak diren hainbat erakunderen lankidetzarekin. Hori mesedegarri izan zen 2.564 pertsonentzat, profil kualifikatuei zein hain kualifikatuak ez diren profilei zuzendutako zerbitzuekin. Parte-hartzaile guztien artean, % 70 izan ziren emakumeak, eta horien artean, 45 urtetik gorakoa izan zen % 71. Guztira 1.697 enplegu berri sortu ziren. Ostalaritzaren sektorea izan zen hartzaile nagusia, hein batean, ostalaritzako elkartarekin dagoen harreman estuari esker. Gainera, zuzenean diruz lagundutako kontratuen % 68 emakumeentzat izan ziren, eta % 56 35 urtetik beherako pertsonentzat.

Proiektu nabarmen bat UBA Eskola Aterpetxearen kudeaketan izandako eraldaketa izan zen, enplegurako eta lan-berrikuntzarako abagune berriak irekiz.

Pertsona horien enplegarritasuna eta laneratzea akuilatzeko, Donostia Sustapenak hiriaren egungo langabeziaren testuinguruan horien kontratazioa akuilatzeko beharrezkoak diren estrategiak indartzea proposatzen du, eta zehazki, kolektibo zaugarriari so. Horretarako, Donostia Sustapenak hiriko pertsona langabetuen kontratazioa bideratuta dagoen deialdi berri hau abiarazi du.

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. XEDEA

Hiriko Lanbide zerbitzuan enpleguko eskatzaile modura izen emanda dauden **langabetuen laneratzea bultzatzea** jardueraren muina Donostian duten enpresetan, kolektibo ezberdinei zuzendutako laguntza mota ezberdinekin.

**a) Kolektibo hauetako kideak diren langabetuen kontratazio mugagabera bideratutako laguntzak:**

- DSBE/BGDS laguntzen hartzaile titullarrak edo onuradunak
- 35 urtetik beherako pertsonak
- Iraupen luzeko langabetuak: Iraupen luzeko langabetu modura ulertzen da kontratatu aurreko 540 egunetan Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile modura izen emanda dauden pertsonak, betiere, denbora horretan langabezian egon badira gutxienez 360 egunez.
- 55 urtetik gorako pertsonak

**b) Aurreko a) atalean aipatzen diren kolektiboetako kideak ez diren langabetuen kontratazio mugagabera bideratutako laguntzak:**

Helburu horrekin zenbateko ezberdineko laguntzak jartzen dira abian, lanaldi eta kontratu ezberdinen iraupenaren arabera, 4. artikuluko betekizunak betetzen dituzten ekonomia jarduerako sektore guztietara bideratuak.

**c) Honako kolektiboetako kide diren pertsona artisten eta ikuskizun publikoetan teknikari eta laguntzaile lanetan aritzeko langabetuen iraupen mugatuko kontratu artistikoetara bideratutako laguntzak:**

- DSBE/BGDS laguntzen hartzaile titullarrak edo onuradunak
- 35 urtetik beherako pertsonak
- Iraupen luzeko langabetuak: Iraupen luzeko langabetu modura ulertzen da kontratatu aurreko 540 egunetan Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile modura izen emanda dauden pertsonak, betiere, denbora horretan langabezian egon badira gutxienez 360 egunez.

- 55 urtetik gorako pertsonak

**d) Aurreko c) atalean aipatzen diren kolektiboetako kide ez diren pertsona artisten eta ikuskizun publikoetan teknikari eta laguntzaile lanetan aritzeko langabetuen iraupen mugatuko kontratu artistikoetara bideratutako laguntzak:**

Helburu horrekin zenbateko ezberdineko laguntzak jartzen dira abian, lanaldi eta kontratu ezberdinen iraupenaren arabera, 4. artikuluko betekizunak betetzen dituzten ekonomia jarduerako sektore guztietara bideratuak.

## 2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak **BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEI ETA SEI EURO ETA HOGETA HAMAIA ZENTIMOKO (547.686,31 €)** zenbatekoa bideratuko du laguntza horietara, Lanbide (EEZ) zerbitzuak igorritako diru-laguntzatik datozen Oinarriek eta enplegua sustatzeko 2024ko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiko 2024ko uztailaren 23ko Ebazpenez arautuak.

Donostia Sustapenak zenbateko hori aldatzeko eskubidea gordetzen du, egokitzen jotzen baldin badu.

## 3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntzaren pertsona onuradun modura hartuko da laguntza ematea ekarri zuen jarduera egin behar duen hura, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere, Oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak betetzen baditu eta, espezifikoki, laguntza mota bakoitzarekin lotutakoak.

Pertsona onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, nazional edota atzerrikoak, eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarteak ere, Oinarri hauetan ezarritako betekizunak jasotzen dituen ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira. Kanpoan geratzen dira ondarezko sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan zehazten direnak.

Oinarri hauetan dagozkion laguntzak eskatzeko beharrezkoak diren betekizunak eta horiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira. Edozein kasutan, Diru-laguntzen Lege Orokorreko (aurrerantzean, DLLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz.

Ezingo zaie laguntza pertsona fisiko edo juridikoei eman:

- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen ez badituzte.

- Ebazpen irmoz dirulaguntzak edota laguntza publikoak jasotzeko aukeraren galerarekin zigortuak badaude, edo horretarako ezgaitzen dien legezko debekuren bat badute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2024 Dekretuko 23.2 artikuluan xedatzen denaren arabera sexu-arrazoien ondoriozko diskriminazioagatik zigortuak badaude barne; era berean, ezingo dira horien onuradun izan pertsona fisikoak edo onuradunak sexuagatiko diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso badu kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldian. Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean edukitzeko betebeharrarekin, halakorik ez duten enpresek ere ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso, ezta Estatuak emakumeen eta gizonen berdintasun arloan legeriaz ezarrita dituen baldintzetan sexu-jazarpena, sexu-arrazoien ondoriozko jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitu eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresek ere. Donostiako Udalarekin edota Donostia Sustapenarekin zorrak baldin badituzte.
- Aldez aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzultzeke badituzte, itzultzeko zenbatekoa ordaindu izana egiaztatzen ez den bitartean.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 28.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunek eskubidea dute jadanik Administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak, edo beste edozein administrazio egindakoak, ez helarazteko. Gainera, administrazio jarduleak aukera izango du dokumentu horiek behatu edo biltzeko, interesdunak horrekiko aurkakotasuna azaldu ezean. Kasu horretan, ziurtagiriak helarazi beharko lituzke.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die eskumeneko herri-administrazioei jarraian adierazten den informazio hau, prozedura hau ebatzi eta ordaintzeari begira:

- Udalarekin eta Donostia Sustapenarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Pertsona onuradunaren eta pertsona sustatzaileen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historia
- Gizarte Segurantzarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiria.

Dirulaguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten pertsona onuradunek HAMAR (10) egun balioduneko epean, jakinarazpenetik zenbatzen hasita, betebeharrak hori egunean izatea egiaztatzea beharko dute.

#### 4. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BETEKIZUNAK

Tokiko enpresatzat hartuko dira Donostiako udal barrutian beren lanlekua eta ekonomia jarduera duten pertsona fisiko edo juridikoak, izaera pribatukoak.

Ezingo dute pertsona onuradun izaera izan honakoek:

- Ezingo dira onuradun izan 25% baino gehiagoan Sektore Publikoak diren erakundeen (halakotzat ulertuta, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak lekualdatzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikuluan barneratzen diren erakundeak), irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondarezko sozietateen edota Elkargo Profesionalen mendeko edo horiek partaidetutako erakundeak.
- Aldi baterako lanerako enpresak.

#### 5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Hiriko langabetuen kontratazioak, haien **laneratzea bultzatze aldera**, Donostiako hiriko udal barrutian jardueraren gunea duten enpresetan.

Hauek izango dira emateko laguntzen gehienezko zenbatekoa eta diruz lagun daitezkeen gastuak:

##### 5.1 Kolektibo hauetako kideak diren langabetuen kontratazio mugagabera bideratutako laguntzak:

- DSBE/BGDS (Sarrerren Bermerako Errenta/Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera) hartzaile titularrak edo onuradunak.
  - 35 urtetik beherako pertsonak.
  - Iraupen luzeko langabetuak. Iraupen luzeko langabetu modura ulertzen da *kontratatu aurretik Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile modura izen emanda dauden pertsonak 540 egunean zehar, betiere, denbora horretan langabezian egon badira gutxienez 360 egun.*
  - 55 urtetik gorako pertsonak.
  -
- a. Gizonei lanaldi osora egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko HAMAR MILA EUROKO (10.000,00 €) gehienezko laguntza.

- b. Emakumeei lanaldi osora egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko HAMAIKA MILA EUROKO (11.000,00 €) gehienezko laguntza.
- c. Gizonei lanaldi erdira egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko BOST MILA EUROKO (5.000,00 €) gehienezko laguntza.
- d. Emakumeei lanaldi erdira egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko BOST MILA ETA BOSTEHUN EUROKO (5.500,00 €) gehienezko laguntza.

Kontratazioak % 50etik gorako lanaldiekin egiten badira, dirulaguntza (laguntzaren gehienezko muga) lanaldiarekiko proportzionala izango da.

### **5.2 Aurreko a) atalean aipatzen diren kolektiboetako kideak ez diren langabetuen kontratazio mugagabera bideratutako laguntzak:**

- a. Gizonei lanaldi osora egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko ZORTZI MILA EUROKO (8.000,00 €) gehienezko laguntza.
- b. Emakumeei lanaldi osora egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko ZORTZI MILA ETA ZORTZIEHUN EUROKO (8.800,00 €) gehienezko laguntza.
- c. Gizonei lanaldi erdira egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko LAU MILA EUROKO (4.000,00 €) gehienezko laguntza.
- d. Emakumeei lanaldi erdira egindako lan-kontratu MUGAGABE bakoitzeko LAU MILA ETA LAUREHUN EUROKO (4.400,00 €) gehienezko laguntza.

% 50etik gorako lanaldiko kontratazio MUGAGABEEN kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehienezko muga) lan egindako lan-egunekiko proportzionala izango da.

### **5.3 Honako kolektiboetako kide diren pertsona artisten eta ikuskizun publikoetan teknikari eta laguntzaile lanetan aritzeko langabetuen iraupen mugatuko kontratu artistikoetara bideratutako laguntzak 407 edo 507 lan-kontratuko kodea (L.K.):**

- DSBE/BGDS (Sarreren Bermerako Errenta/Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera) hartzaile titullarrak edo onuradunak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Iraupen luzeko langabetuak. Iraupen luzeko langabetu modura ulertzen da *kontratatu aurretik Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile modura izen emanda dauden pertsonak 540 egunean zehar, betiere, denbora horretan langabezia egon badira gutxienez 360 egun.*
- 55 urtetik gorako pertsonak.

- a. Gizonei lanaldi osora egindako 6 HILABETEKO EDO GEHIAGOKO iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko ZAZPI MILA ETA BOSTEHUN EUROKO (7.500,00 €) gehienezko laguntza.
- b. Emakumeei lanaldi osora egindako 6 HILABETEKO EDO GEHIAGOKO iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko ZORTZI MILA ETA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROKO (8.250,00 €) gehienezko laguntza.
- c. Emakumeei lanaldi erdira egindako 6 HILABETE EDO GEHIAGOKO IRAUPEN mugatuko kontratu bakoitzeko LAU MILA ETA EHUN ETA HOGEITA BOST MILA EUROKO (4.125,00 €) gehienezko laguntza.–Kontratazio horiek % 50etik gorako lanaldiekin egiten badira, dirulaguntza (laguntzaren gehienezko muga) lanaldiarekiko proportzionala izango da.

**5.4 Aurreko 5.3) atalean aipatzen diren kolektiboetako kide ez diren pertsona artisten eta ikuskizun publikoetan teknikari eta laguntzaile lanetan aritzeko langabetuen iraupen mugatuko kontratu artistikoetara bideratutako laguntzak, 407 edo 507 kontratu-kodea:**

- a. Gizonei lanaldi osora egindako 6 HILABETEKO EDO GEHIAGOKO iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko SEI MIL EUROKO (6.000,00 €) gehienezko laguntza.
- b. Emakumeei lanaldi osora egindako 6 HILABETEKO EDO GEHIAGOKO iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko SEI MIL ETA SEIEHUN EUROKO (6.600,00 €) gehienezko laguntza.
- c. Emakumeei lanaldi erdira egindako 3 ETA 6 hilabete arteko iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko HIRU MILA ETA HIRUREHUN EUROKO (3.300,00 €) gehienezko laguntza. Kontratazio horiek % 50etik gorako lanaldiekin egiten badira, dirulaguntza (laguntzaren gehienezko muga) lanaldiarekiko proportzionala izango da.

Deskribatutako kolektiboetako kide diren pertsonak kontratatzekeo laguntzen kasuan, laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du gainditu kontratatutako pertsonaren soldatako kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 100a, kontratu amaierako indemnizazioak barne, eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzako kuota behin dagozkion hobari edota kenkariak deskontatuta.

Deskribatutako kolektiboetako kide ez diren pertsonak kontratatzekeo laguntzen kasuan, laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du gainditu kontratatutako pertsonen soldatako kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75a, kontratu amaierako indemnizazioak barne, eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzako kuota behin dagozkion hobari edota kenkariak deskontatuta.

## 6. ARTIKULUA. LAGUNTZAKO KONTRATAZIOEN BETEKIZUNAK

Laneko kontratazioek gutxieneko betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) **Kontratatutako pertsonak Langabezian egotea eta Lanbide EEZ (Euskal Enplegu Zerbitzua) zerbitzuan enplegu eskatzaile modura izen emanda egotea.** Izen-emate data laneko harremana hasteko egunaren aurretikoa izango da. Langabetutako pertsonak ezin dira langile modura alta egoeran egon Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean, ezta Langile Autonomoen Araubide berezian ere, laneko harremana hasi aurreko egunetik gutxienez. Ez dira, betekizun hau betetzeari begira, kontuan izango Lanbiden “Zerbitzuen eskatzaile” izaeraz inskribatuta dauden pertsonak.
- b) Kontratazio beharrianak Oinarri hauetako 5. artikuluan jasotzen diren tipologietako batekoak izatea eta laneko harremana **2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 bitartean** hastea.
- c) Kontratatutako pertsonak **errola Donostian** izatea, gutxienez, lan-harremana hasi aurretiko egunetik. Baliozkoak izango dira, soilik, laneko harremana hasten den egunez eta aurrekoan errolatuta daudela erakusten dutenak. Erroldak Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo artikulua horretan ezarritako baldintzetan harekin lotura duen edozein erakunderekin lotura duen edozein pertsona fisiko bizi den aparteko helbide batekoa izan beharko du. Halaber, eta betekizun hori betetze aldera, ez dira kontuan izango, edozein arrazoi dela medio eten arren, kontratatutako pertsonak, Donostiako hirian, aurretik zituen erroldak.
- d) Lanpostuak lotura zuzena izatea enpresak garatzen duen jardunarekin.
- e) Laguntzaren xede den kontrataziorako kontratatzen den pertsonaren lanlekua Donostiako udal barrutian kokatuta egotea.
- f) **Lan-kontratuak indarrean jarraitzea diruz lagun daitekeen epealdian zehar:**
  - a. Kontratu mugagabeen kasuan, epealdi hori, gutxienez, 12 hilabetekoa izango da.
  - b. Hiru eta sei hilabete arteko iraupen mugatuko kontratu artistikoen kasuan. Epealdi horretan pertsonaren kontratuaren iraunaldia aintzatetsi beharko da.
  - c. Sei hilabetetik gorako iraupen mugatuko kontratu artistikoen kasuan, gutxienez, sei hilabetez mantendu beharko da.

Laneko harremana diruz laguntzen den epealdiaren aurretik amaitzen baldin bada, laguntza ezetsi egingo da, baldin eta laneko harreman hori ez bada arrazoi objektiboengatik edo enplegatzaileaz aparteko arrazoiengatik amaitu. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, laneko kontratuaren egiazko iraupenaren proportzioan. Pertsona onuradunak onartutako laguntza osoa mantendu ahal izango du, arrazoi objektiboak edo enplegatzaileari ez dagozkion arrazoi onorioz kontratua amaitu zaion pertsona langilea ordeztzeko, programako oinarri



arautzaileetan eskatzen diren betekizunak betetzen dituen beste pertsona batekin. Horretarako, 30 egun naturaleko epea izango du, Gizarte Segurantzaren baja egiaz ematen duen egunetik zenbatzen hasita, beste kontratu mugagabe bat formalizatzeko.

Derrigorrezkoa izango da kontratu berria Gizarte Segurantzaren alta eman eta, beranduenez, 15 eguneko epean jakinaraztea. Horren ondoren, Donostia Sustapenak dirulaguntza mantendu ahal izateko enpresak egiteko izapideen berri emango du”.

Onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa mantendu egingo da, betiere, bi kontratazioetako aldien batura, gutxienez, hasierako kontratuko bada, edo gutxienez derrigorrezko indarreko 12 hilabeteko aldira iristen bada kontratazio mugagabearen kasuan.

g) **Kontratazioek enpleguaren sorrera garbia ekarri beharko dute** enpresan dagoen batez besteko lantalde osoaren gainean diruz lagunduko den kontratua duten pertsonak gaineratu aurretiko SEI (6) HILABETEETAN.

Hori kalkulatzeko, kontuan izango da, dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren egunean batez besteko lantaldean altan dagoen langile kopurua kontratazio egunaren aurreko SEI (6) HILABETEETAN batez besteko lantaldean alta egoeran dagoen langile kopurua baino handiagoa izatea. Hori egiaztatzen ahal izateko, “batez besteko lantaldean alta egoeran dauden langileen bi txosten” helarazi beharko dira, Gizarte Segurantzak igorriak; bat, kontratuaren eguneko aurreko SEI (6) HILABETEETAN dagoena, eta beste dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren egunekoak.

*Adibidea: 2024ko ekainaren 15ean egiten den kontratu baten lantaldearen igoera garbia egiaztatzen txosten hauek helarazi beharko dira:*

1. 2022ko abenduaren 15etik 2024ko ekainaren 14ra batez besteko lantaldean alta egoeran dagoen langile kopuruaren txostena.
2. 2024ko ekainaren 15etik 2024ko ekainaren 15era batez besteko lantaldean alta egoeran dagoen langile kopuruaren txostena.

h) Kolektiboetakoak diren langabetuei egiten zaizkien kontratazioetan pertsona horiek tipologia hauetakoren batekoak izatea bete beharko da:

- DSBE/BGDS-en hartzaile titularrak edo onuradunak
- Kontratuaren egunez 35 urtetik beherako pertsonak izatea.
- Iraupen luzeko langabetuak: Iraupen luzeko langabetu modura ulertzen da enplegu eskatzaile gisa izen emanda daudenak, langabetua, kontratatu aurretik Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) “enplegu eskatzaile” modura izen emanda dauden pertsonak 540 egunean zehar, betiere, denbora horretan langabezia egon badira gutxienez 360 egun.
- Kontratuaren egunez 55 urtetik gorako pertsonak izatea.

### Hurrengo kontratazioak ez dira diruz laguntzeko modukotzat jotzen:

- % 50etik beherako lanaldiz egiten diren kontratazioak, kontratu mugagabeen kasuan.
- Lanaldia aldatutako kontratuak, baldin eta aldaketek hasieran kontratatutako lanaldia luzatzea ekarri ez badute.
- Oinarri hauetako 5. artikuluan deskribatzen diren kontratu-epealdi edo -iraupenen azpitik egiten diren kontratazioak.
- Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan pertsona onuradunarekin lotura duen edozein pertsona fisikoren kontratazioa.
- Ezkontide edo izatezko bikotearen kontratazioa, izatezko bikotea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera, arbasoa, ondorengoa edo bigarren graduak albokoa denean, izan jatorria ahaidetasunean, odolkidetasunean, kidetasunean, izatezko bikotea eratu ondorengo harremanean edo adopzioan. Halaber, ez dira kontratatzeak izango pertsona onuradun horrekin Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluko 3. atalean adierazten den lotura duen pertsonatzat hartzen diren pertsonak ere.
- Aldez aurretik, enpresa berean, deialdi honetan zein aurreko deialdietan, kontratatzean enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzak jaso dituzten pertsonen laneko kontratazioak.
- Ez da aldizkako kontratu finkorik onartuko, ezta aldizkako kontratuak mugagabera bihurtzea ere.
- Laguntza eskatu ostean luzatutako kontratuak ez dira onartuko.
- Ez dira kontratuen baturak onartuko. Diruz laguntzeko laguntza bakoitzeko kontratu bakarra onartuko da.
- Euskal Enplegu Zerbitzuan zerbitzuen eskatzaile modura izen emandako langabetuen kontratazioak.

**Guztira, gehienez 2 laguntza** onartuko ahalko dira pertsona onuradun bakoitzeko.

Donostia Sustapenak aurreko edozein betekizun betetzen dela egiaztatzeko edozein dokumentazio edo informazio gehigarri eskatzeko eskubidea gordetzen du.

## 7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERA EMATEA

Laguntza horiek bateraezinak izango dira helburu berarekin emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazionaletatik, datozelarik, gizarte segurantzarako hobariak salbuetsita.

Oinarri hauetan ezartzen diren laguntzek 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 zenbakidun Erregelamenduan (EB) Europar Batasunaren Funtzionamendurako Tratatuak 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoan, 2013ko abenduaren 24ko EBAO aldizkarian

argitaratua, minimis izeneko laguntzei dagokienez zarritako “minimis” izeneko arauak beteko dituzte.

## 8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea **oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen, eta laguntza honetara bideratutako baliabide ekonomikoak xahutu arte** (kasu horretan, xahutze hori Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) luzatuko da, **edo, bestela, deialdia itxi arte, 2025ko urtarrilaren 31ean** gertatuko dena.

Behin eskaerak egiteko epea amaituta, soberakinik baldin badago edo zuzkidura ekonomikoa areagotzen bada, eta Donostia Sustapenak egokitzen jotzen baldin badu, eskaerak egiteko epea luza dezake oinarri hauek aldatuta (kasu horretan dagozkion bideetan argitaratuko da).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunearen bidez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Sinadura behar duen atxikitako dokumentazioak sinadura digitala izan beharko du.

Edozein informazio edo kontsultarako 943 482800 telefono-zenbakian edo [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbide elektronikoan artatuko da, azken horretan zera adierazi beharko da gai modura: “2024. URTERAKO KONTRATAZIO LAGUNTZAK”

Publikoaren arretarako ordutegia Donostia Sustapenaren webgunean adierazitakoa da.

Laguntza ekonomiko hori eskatzeko interesa duten enpresa edo erakundeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

### ERANSKINAK:

1. “**Eskaera**” izeneko **eranskin-orria**.
2. “**Bankuko datuak**” izeneko **eranskin-orria**, dagokion banku erakundeak sinatuta. Bankuko datuen eranskina edo bankuko agiri baliokidea.
3. “**Kontratazioaren datuak**” **eranskin-orria**.

### ENPRESAREN DOKUMENTUAK:

4. Pertsona fisikoaren kasuan, **eskatzailearen NAN agiriaren kopia**.
5. Pertsona juridikoaren kasuan, eskatzailearen IFK kodearen kopia eta, hala badagokio, sinatzailearen NAN agiria.

#### KONTRATAZIO DOKUMENTUAK:

6. **Laneko kontratuaren kopia**, lanpostua, iraupena, lanaldia eta lanlekua adierazita.
7. **Laneko kontratuaren komunikazioa**, betetzen den okupazioa adierazita.
8. **Kontratatutako pertsonaren NAN / AIZ agiriaren kopia**.
9. Kontratazioa hasi ondotik Lanbidek igorritako **“izen-emate epealdien txostena”** izeneko dokumentua.
10. **Langilearen Lan Bizitza osoa**, dirulaguntzaren xede den kontratua hasi ostean Gizarte Segurantzak igorria.
11. Donostiako Udalak igorritako **erroldatze-ziurtagiria**, kontratuaren xede den pertsonaren kontratazio-egunaren ondorengo data ageri duena, edo hura eskatzeko Donostia Sustapenaren baimena.
12. **Batez beste lantaldean** alta egoeran dagoen langileen **txostena**, Gizarte Segurantzak igorria, **kontratazio-egunaren aurretiko sei hilabeteei dagokiena**.
13. **Batez beste lantaldean** alta egoeran dagoen langileen **txostena**, Gizarte Segurantzak igorria, **kontratazio-eguneko**.
14. Kontratazioa DSBE/BGDS (Sarreraren Bermerako Errenta/bizitzeko gutxieneko diru-sarrera) hartzaile titular edo onuradunei egiten bazaie, **egoera hori ziurtatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, Langilek igorria**.

Pertsona interesatuek, 2018tik aurrera, Donostia Sustapenaren laguntza-programaren batean parte hartzeko dokumentu horietakoren bat aurkeztu baldin badute aldez aurretik, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriro aurkeztea, baldin eta dokumentazio horrek indarrean jarraitzen badu eta haren datuak aldatu ez badira.

Onuradun den pertsonak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du beregain.

## 9. ARTIKULUA ESKATZAILEEN AKATSAK KONPONTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio osoa berrikusi ostean hura osagabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten bada, pertsona eskatzaileari eskaera egingo zaio akatsa konpon dezan edo beharrezkoak diren dokumentuak gainera ditzan hamar egun balioduneko epean, hala egin ezean, bestelako izapiderik gabe, eskaera hori baztertu egingo dela eta horren ondoriozko ebazpena emango dela adierazita. Donostia Sustapena.

Akatsen zuzenketa horiek pertsona onuradunak harremanetarako posta elektronikoa modura ematen duen helbide elektronikoz jakinaraziko dira. (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak, era berean, eskuragarri izango dira web-aplikazioan, espedientearen barruan.

Akatsa zuzentzeko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko baliatutako bide bera erabiliz aurkeztuko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

Laguntzak Donostia Sustapenak emandako berariazko ebazpen bidez eman edo ukatuko dira eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak, era berean, eskuragarri izango dira web-aplikazioan, espedientearen barruan.

## 10. ARTIKULUA. LAGUNTZEN IZAPIDEA ETA EBAZPENEA

Eskaerak erregistroko hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira laguntza horretara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte, oinarri hauetako 2. artikuluekin bat etorritz.

Eskatutako laguntzaren ebazpena igortzeko epea sei hilabetekoa izango da eskaera erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan ez dira kontuan izango administrazio dokumentazioko akatsak konpontzeko epeak. Laguntza ematearen ebazpena hitzartutako epean ez igortzeak ez du suposatuko haren emakida.

Eskaera ebazten den unean, Donostia Sustapenak harekin batera aurkezteko derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskaerari gaineratu ahal zaion eta ebazpena emateko oinarri hauen arabera beharrezkoa ez den beste edozein dokumentazio ez da zertan berrikusgarri izango laguntzaren ebazpena emateko.

Laguntza Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen arrazoitu bidez onartu edo ukatuko da, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza bakoitza betetzen den ala ez kontuan izanik.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie pertsona eskatzaileei “Jakinarazpenetarako Helbide Elektronikoa” modura Eskaeraren Eranskinean helarazten den helbide elektronikora; web-aplikazioan ere eskuragarri izango dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan; eta pertsona onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Deialdi honi dagozkion jakinarazpenak bitarteko elektronikoa erabiliz egingo dira, eskaeran adierazitako helbide elektronikoa baliatuz. Gainera, eskuragarri egongo dira web-orrialdean, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Igorritako ebazpenarekin desadostasunak izanez gero, alegazioak aurkezteko aukera izango da, beranduenez, ebazpena ematen denetik hilabete batera, eta Donostia Sustapenaren erabakiaren zain egon beharko da, hala badagokio, bi aldeak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren baitan geratuko direlarik.

Modu berean, Donostia Sustapenak, aurrekonturik ez egoteagatik diru-laguntzarik gabe geratu direnekin, erreserban geratzen diren eskaeren zerrenda bat eratu ahalko du, beranduago aurrekonturik balego onartutzat jo ahal izateko.

## 11. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Diruz lagun daitezkeen gastu modura onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak zalantzarik gabe, Oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira.

Diruz lagun daitezkeen gastuetan, berariaz hari helduz, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 31. artikulua izango da aplikagarri.

Laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, onartutako zenbatekoaren % 100ean, horrela:

**Kontratu mugagabeen kasuan**, 5. artikuluko 1. eta 2. puntuetan deskribatuak.

- **2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era hasitako kontratuen kasuan**, laguntzaren % 100aren ordainketa azken justifikazioaren ondoren egingo da, kontratazioaren lehendabiziko 12 hilabeteak igarota, bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dena.

- **2024ko uztailaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra hasitako kontratuen kasuan**, ordainketa bakarra egingo da lehendabiziko justifikazioaren ondoren, kontratazioaren lehendabiziko 6 hilabeteak igarota, hilabeteko epean aurkeztu beharko dena, baina sekula ez laguntza onartu aurretik. Kontratazio horietan, era berean, bigarren justifikazio bat aurkeztu beharko da (azken justifikazioa), kontratazioaren lehendabiziko 12 hilabeteak igarota, bi hilabeteko epean.

**Iraupen mugatuko kontratu artistikoen kasua**, 5. artikuluko 3. eta 4. puntuan deskribatuak, laguntzaren % 100aren ordainketa azken justifikazioaren ondoren egingo da, diruz laguntzeko epealdia igaro ondoren, bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dena.

Garaiz eta forman aurkeztu ezean, edo oinarrietan eskatutako betekizunekiko edozein ez-betetze hautemango balitz, pertsona onuradunak jasotako ekarpena itzuli beharko du osorik 13. klausulan hitzartutakoarekin bat etorritz.

Honako hau izango da **LEHEN JUSTIFIKAZIOAN** aurkezteko dokumentazioa: (justifikazio hau 2014/07/01 eta 2024/12/31 bitartean egindako kontratu mugagabeengatik soilik aurkeztu beharko da)

- 1 Kontratatutako pertsonaren “**afiliatu baten laneko bizitzaren txostena**” izeneko dokumentua, laguntza eskatzen den epealdi eta lanaldian enpresan izan dela erakustekoa.
- 2 Kontratatutako pertsonaren Besteren Konturako Langileen **Kotizazio Datuen Txostena** (KDT), justifikatzeko epealdia hartzen duena.

Honako hau izango da **AZKEN JUSTIFIKAZIOAN** aurkezteko dokumentazioa: (Justifikazio hau diruz lagundutako kontratu guztietarako aurkeztu beharko da laguntzaren xede den epealdiaren ondoren).

1 Kontratutako pertsonaren “**afiliatu baten laneko bizitzaren txostena**” izeneko dokumentua, laguntza eskatzen den epealdi eta lanaldian enpresan izan dela erakustekoa.

2 Kontratutako pertsonaren Besteren Konturako Langileen **Kotizazio Datuen Txostena** (KDT), justifikatzeko epealdia hartzen duena.

3 **Justifikazio-eranskina**: diruz laguntzeko epealdian egiazko kostua (nomina eta gizarte-aseguruak) laburbiltzen duen finantza-memoria eta helburu berarekin beste laguntzarik jaso eta eskatu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena barneratzen dituen.

4 **Nominen eta gizarte-aseguruen nahiz horien ordainketen kopia**. (langileak sinatutako nominekin ordainagiriaren balio bera dute).

Dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

## 12. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza horien onuradun diren pertsonak Diru-laguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotzen diren betebeharrak orokorrak hartuko dituzte beregain, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz, betebeharrak aipatzen (zerrenda modura eta ez mugatzaile modura) direlarik:

- a) Laguntza diruz lagundutako jarduerak burutzera bideratzea.
- b) Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa ezarritako moduan eta denboran aurkeztea.
- c) Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzeko dokumentuak gordetzea, egiaztatu edota ikuskatu daitezkeen bitartean eta, edozein kasutan, aplikagarri den araudian ezartzen den epean zehar.
- d) Proiektuak dituen jardueren gastu edo diru-sarrerak osorik zenbatzea.
- e) Kontabilitateko liburuak behar bezala osatzea, horretarako betebeharrak dagoenean.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- g) Laguntzak emateko kontuan izan den edozein inguruabar, subjektibo nahiz objektibo, aldatu bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- h) Emandako laguntzekiko dituen zereginak betetzeko Donostia Sustapenak eskatzen duen informazio oro helaraztea.
- i) Donostia Sustapenari helburu berarekin jasotako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen berri ematea.
- j) Jasotako laguntzarekin lotuta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
- k) Donostia Sustapenari laguntzen xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak

aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea. Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin kolaboratzea finantzaren kontrol eta egiaztapenerako burutu ditzakeen esku-hartzeetan, haren eskura eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia ipiniz.

- l) Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezkoak liratekeen lizentzia edo baimen guztiak izatea.
- m) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea.
- n) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanaz) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, gizarte-sareak, posta elektronikoen bidalketak, megafonia, etab.) sustapen eta hedapenerako materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldien hizkuntza erabiltzean, etab.
- o) Erakunde eskatzaileek aukera izango dute Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari aholkularitza eskatzeko testuen itzulpenak egin eta horiek zuzentzeko (gehienez hilean 1.000 karaktereko itzulpenak, eta zuzenketa kasuan gehienez 9.000 karaktere), betiere, zerbitzuaren betekizun eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>).
- p) Erakunde eskatzaileek beren ekintzekin ekarpen espezifikoak egin beharko dute pertsona onuradunek eta, oro har, herritarrek, Lanbideren (Euskal Enplegu Zerbitzua) kontribuzioaren berri izan dezaten.

### 13. ARTIKULUA. ITZULKETA

Pertsona onuradunak jaso duen ekarpena itzuli egin beharko du, diruaren interes legala gaineratuta (emandako kopuruen ordainketa egin den unetik aurrera), egoera hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusten diren betebeharrak modu larri eta errepikatuan urratzea. Ez-betetze larri edota errepikatu modura ulertuko da oinarri hauetako betebeharrak bat edo zenbait behin baino gehiagoan ez betetzea; helarazitako edozein datu, ziurtagiri, txosten edo dokumentazioaren faltsutasun edo faltsifikazioa; edota oinarri hauen esparruan jasotako laguntza, osorik edo zati batean, aurreikusitakoaz aparteko helburu batera bideratzea.
- Ekarpeneren helburua Oinarri hauetan aurreikusitako moduan epe barruan justifikatzeko betebeharra zein horietan ezarritako edozein betekizun eta betebeharrak urratzea, edota behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskapen esku-hartzeen aurrean uzkur, aitzakiaz, buxaduraz edo ezkor agertzea, eta baita kontularitzako, erregistrozko edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak ez betetzea horren ondorioz emandako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu berdinekin edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen, nazionalen, Europar Batasuneko edota nazioarteko erakundeen aldetik jaso ahal izan diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak egiaztatzea ezinezkoa denean.
- Jarduerak neurritz gaineko finantzazioa jaso izana, xahutu ez den edo neurritz gain



finantzatu den zenbatekoan.

- Kontratua etetea objektibotzat jotzen ez diren edo enplegataileari ez dagozkion arrazioen ondorioz.

Aurrekoa kontuan izanik, laguntza hauen onuradun izateko eskatzen diren betekizunak uneoro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak aukera izango du horien itzulketa eskatzeko aurreko lerroaldeetan zehaztutako baldintzetan. Halaber, ez-betetzearen kasu larriagoetarako, esate baterako, datuak faltsutzea edo jasotako laguntza, osorik edo zati batean, desbideratzea, Donostia Sustapenak eskumena izango du emandako laguntza bertan behera uzteko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztien itzulketa erabakitzeke, eta gainera, jasotako zenbatekoaren halako bost ordaintzeko eskatu ahal izango du.

Ekarpena itzuli beharko da, Donostia Sustapenaren aldetik eta onuradunari igorrita, jarraian deskribatzen diren baldintzekin, Oinarri hauetan ezarritako arrazoietakoren bat gertatzea adierazita.

Itzulketa laurogeita hamar (90 ) egun naturalen barruan egin beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari artikulua honetan itzulketa egiteko aurreikusten diren arrazoietakoren bat gertatu dela adierazteko jakinarazpena, burofax bidez, igortzen dionetik.

Halaber, eta aurreko lerroaldeetan hitzartutakoaz gain, Donostia Sustapenak eskubidea gordetzen du oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz urratu duten edo fede onaren funtsezko arauak urratzea ekarri duen jokabidea izan zuten pertsona fisiko edo juridikoei Donostia Sustapenak eskainitako beste edozein laguntza edo onuretan parte hartzea ekiditeko BI (2) URTEKO epez.

## 14. ARTIKULUA. ELKARREN ARTEKO FINANTZAKETA

Laguntza hauek Lanbidek (EEZ) finantzatzen ditu enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzen 2024 Deialdiaren barruan, Lanbideren (Euskal Enplegu Zerbitzua) Administrazio Kontseiluaren 2024ko martxoaren 19ko akordioz, 2024ko apirilaren 2ko EHAAn argitaratua, eta 2024ko uztailaren 23ko onarpen-ebazpenez onartuak.

## 15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarreko araudian ezartzen denaren arabera, helarazten dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela jakinarazten da, Tratamenduaren arduradun modura jardungo duena, Donostia Sustapena S.A. sozietateak kudeatutako informazioa izanik tratamenduaren arduradun izaeran.

Tratamenduaren xedea laguntza-eskaera izapidetu eta kudeatzea da. Tratamenduaren zilegitasuna DBEO erregelamenduko 6.1.e) artikuluan oinarritzen da: tratamendua

ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzean burututako misioa betetze aldera: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruzko informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta horiek ez emateak edo datu okerrak emateak eskaera kudeatu ahal izatea ekidingo du.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun diren pertsona eskatzaileek emandako datu pertsonalak, hala badagokio, laguntza horien finantzaketan parte hartzen duten edota horien kudeaketan Donostia Sustapenarekin kolaboratzen duten erakunde nazionalai edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahalko zaizkie, hori beharrezkoa denean eta soilik emakida kudeatzeko xedez.

Halaber, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazioko datuak komunikatu edo lagatzea, horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web-orrialdean nahiz Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuz.

Ez da aurreikusten datuak hirugarrenei modu gehigarrian komunikatzea, legezko betebeharra salbuetsita, eta datuen nazioarteko transferentziak ere ez dauden aurreikusita.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeke eta datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Eragindako pertsonak datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006, Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezala artatua izan ez bada, erreklamazio bat ipini ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua (01008, Gasteiz). Haatik, aldezturik eta hautaz, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango da: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

## 16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

### Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez iragarriko dira eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek eskaera aurkezten dutenean bertako oinarriak osorik onartzen dituzte.

### Erantzukizunetik salbuestea.

Pertsona onuraduna izango da laguntzen den jarduera egitearen ondorioz, edo aurretik edo ondorengo esku-hartzeen ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edota material guztien gaineko erantzule bakarra, Donostia Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuz.

## 17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak Oinarri hauetan jasotzen diren araei jarraiki arautuko dira eta, horien ordeztu, Diru Laguntzen Lege Orokorrean jasotzen diren araei eta hura garatzeko Erregelamenduari jarraiki, Diru Laguntzen Lege Orokorrearen Erregelamendua (aurrerantzean DLLOE) onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartua. Haatik, Diru Laguntzen Lege Orokor horretarako edukiak kudeatzeko printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazioei buruzkoei dagokienez eskusiboki, hori guztiori bertako 3.2. artikuluko bigarren lerroaldearekin bat etorritik, aplikazio hori zehazten duena. Era berean, 2024ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren bidez arautuko dira, Lanbideko (EEZ) zuzendari nagusiaren 2024ko uztailaren 23 onarpen-ebazpenez.

Bestelakoan, DLLO eta DLLOE horiek soilik aplikagarri izango dira oinarri hauetan legezko testu horien gaineko aipu berariazkoak egiten direnean.

Donostian, sinaduraren datan.

**Ane Oyarbide Ochoa**

**Ekonomia eta Tokiko Enplegu Zinegotzi Ordezkarria**